

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/12/21 354

🌀	Begoña Aristi eta Eider Elduaien
🌀	Bertsoak euskararen egunari
🌀	Euskararen Eguna ospakizun eskualdean
🌀	Karmele Jaio, zu bezain ahul
🌀	Kultura: Ion Garmendia

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

Herritarren artean euskararen erabilera zabaltzea helburu



Helduen pijamak 29€
Haurren pijamak 23€

Korseteria, lentzeria, bainujantziak eta pijamak

Etxe onenekin egiten dugu lan: lohe, esprit, promise,
pierre cardin...

50. urteurrena

Zozketa: landaetxe baten asteburu bat

Nerea Lentzeria
Errementari kalea, Tolosa
tel:943 671 630



SUPER EKO
SUPERMERTATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua



Lagun Aro-ren partidarako,
VIP gunean, 2 sarrera
bikoitza zozketatzen dira.

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 587



AMAIA ETXETXIPIA

"BIOLOGIAN" lizentziatua eta "GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN" Diplomaturia

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA

HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

CITROËN
GRAND C4 PICASSO

FIRST VTI: **14.540€** TIK

- AIRE EGOKITUA
- OKIDENAGAILUA
- BAS, ATZERAKO ISPIUA ETA ASR
- BITEIRA ALDAPATSUTARRAKO LAGUNTZA
- DIRIKZIO-SISTEMA LAGUNTZARRA
- ABAGARRA ERREGULATZARRA ETA MUGATZARRA
- ISPIU ELEKTRIKO TERMIKOA
- ANKULU HANDEKO HAUTATARRAK FUNKZIONARRA
- ANKULATZARRAK FRENDE ELEKTRIKOA
- 6 BIZKORRALDUN IRANDA CD MP3

CITROËN jarduera Tolosa.

TEKNOLOGIA EZ DA AMESTEKO.
EDUKITZEKO BAIZIK.

CITROËN, MONOSOLUHEKETA LEHENEA



"Hau izango berru... berru hau izango berru..." Zergatik bai ditzazkeguak erabili, berru den **perfektua** erabili ahal duzun? Desio duzun teknologia guztia emanen ezazu, modurik erosoenean eta Grand C4 Picasso berruak zure arretak berriki dituen prezioekin.

KONTSUMO MISTOA (L/100Km) / CO2 EMISIOA (g/Km): GRAND C4 PICASSO: 4,9 - 7,0 / 129-177

[1] 2011ko abuztuaren akumulatutako nutrikzio datuak. *Gomendatutako Grand C4 Picasso VTI 120 First izozgai, garbiera eta beharpenak barne) 5.000€-ko kapital erantsarekin finantziazio duen partikularen zuzendutako finantziazio minora 36 hilabete iraungo dituen. Hilabete bukatuaren amaieran PSA Finance-aren bitartez. Beharpen ez gogoratuak. www.citroen.es orrian kontuzko kontuzko. Mercedes, Citroen C4 Exclusive berru.



CREATIVE TECHNOLOGIE

IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxexipia, Jone Gorostarzu, losu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia,
 Juankar Arregi
 Zuzentzailea: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOIKK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Herritarren artean euskararen erabilera zabaltzea helburu

Galtzaundi Euskara Taldeak abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizun bezperan hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosa eta Ibarako ikastetxe, Aitzol Udal Euskaltegia eta Tolosako Udalarekin elkarlanean. Ekimen hauen guztien helburua herritarren ahotan euskara entzutea da.

8-11. orrialdeak

Pello Beldarrain Iruran kokaturiko Baso-Lur enpresako kudeatzailea da. 50 urteko Billabonatarra, euskalduna. Nekazaritza tresneria saltzen eta konpontzen 30 urtez jardun den honetan enpresa munduan euskarari behar duen tokia ematen lan egin du.

Pello Beldarrain

14-16. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Begoña Aristi eta Eider Elduainen	4-5
	Normalizazioa: Euskeran eune	6-7
	Euskararen Eguna ospakizun bihurtuta eskualdean barrena	12-13
	Irakurlearen begietatik: Karmele Jaio, zu bezain ahul	17
	Kultura: Ion Garmendia	18-19



Begoña Aristi
EHNE

4 Gaur egun, oso esku gutxitan dauden agroenpresa multinazionalak dira gero eta gehiago, elikadura merkatua kontrolatzen dutenak eta hauek erabakitzen dute, bere interes ekonomikoen arabera, zer jan behar dugun. Janaria, oinarrizko eskubide izatetik merkantzia izatera pasa da. Gainera, nekazariari prezioak inposatzeko boterea dutenez, hauek itotzen ari dira.

Baina arazoa ez da baserritarrena bakarrik, baizik gizarte osoarena. Gure elikaduraren kontrola berreskuratu behar dugu. Guk erabaki behar dugu zer jan nahi dugun, nork, non eta nola ekoiztua izango den eta zein baldintzetan.

Horretarako ezinbestekoa da denon arteko lana, etorkizunean nork ekoiztua izan dezagun; tamalez gero eta

Gure baserrietako altxorra

baserritar gutxiago baitago gure inguruan lan hau egiteko prest, baldintza hauetan.

Salmenta zuzenaren bidez, urte luzeetan zehar ahalbidetu da baserria eta herriaren arteko zubia. Azken urteetan gainbehera joan diren azoka eta etxez etxeko salmentak badirudi behea jo duela eta goranzko bideari ekin diola.

Honen adibide dira gure inguruko herri ezberdinetan, baserritar eta kontsumitzaileen artean sortutako Kontsumo Taldeak. Mugimendu hau herrian bertan jaiotakoa izaki, gizartearen beharrei erantzun nahi dien proiektu bat da.

Baserritarrok, gure baserrietan ekoizten ditugun produktuak eskaintzen ditugu. Honek bermatzen du garaian garaiko produktuak izatea, ezagutzea, dastatzea... Kalitatezko elikagaiak izatea eta hauen ziklo naturalak errespetatzea.

Hau da Kontsumo taldeetan sustatzen den nekazaritza eredua, gizartearen beharrei erantzuten diona eta naturaren errespetuan oinarrituta egiten dena. Lurrari eta herriari lotutako nekazaritza.

Talde hauetako xedea ez da elikagaien saskia diru kopuru batengatik trukatzeari soilik. Honen atzean badago kontzientzia bat. Horretarako, besteren artean, baserritarrak eta kontsumitzaileak hilero batzar bat egiten dugu eta hainbat gai jorratzen ditugu: bara-

tzaren egoera, ekoizpenean sortutako gorabeherak, kide berriak, produktu berriak, ekintza ezberdinak...

Baserrietara bisitak egitea ere oso gomendagarria da, bertatik ikusi eta ezagutu ahal izateko ekoizpenaren gorabeherak, lana egiteko modua eta besteak beste baserritarren eguneroko lanaren isla bat.

Salmenta zuzenaren gainean bada beste puntu bat aipatu gabe utzi nahi ez dudan, azokak alegia. Gure herrietan egunero eta astero egiten diren azoka horiei eman nahi diet indarra. Badakigu azoka bereziek sortzen duten interesa eta ikusmina handia dela eta jende ugari erakartzen dutela, denak dira beharrezko.

Baina egunero eta astero egiten diren azoka hauek ematen digute aukera, baserria eta baserritarra bertatik ezagutzeko, kalitatezko, bertako eta garaian garaiko produktuak erosteko, gure sukaldeetan izateko eta dastatzeko. Hauen bidez, elikagaien ezagutza, gustua, usaimena eta kultura lantzen joan gaitzkeelako.

Ez ahaztu zure etxe inguruan dagoen baserritar horrek ekoizten dituen produktuak altxor garrantzitsu bat direla, besteak beste osasunerako. Garaia da beraz, bertako produktuen aldeko apustua egiteko. Nekazaritza iraunkor bat bermatzeko eta denok osasunean inbertitzeko.

Paternalismorik ez, eskerrik asko

Sentsazio hori askotan errepikatzen zait niri, behintzat. Gizonezko askoren lehen erreakzioa emakumeok babestea izaten da, egoera zail edo tentsiozko batean inizatiba hartzea eta gure aurrean jartzea, askotan intentzio txarrik gabe baina jarrera horrekin gutxietsi, txiki egiten gaituztela ohartu gabe. Guk ere ahotza badugula ahanzten zaie. Instituzioekin ere gauza bera gertatzen da askotan. Adibide bat jartzearen, Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako Jaurlaritzako Zuzendaritzak aurkeztu duen lege aurreproiektuak, emakume erasotuei bizkartzainak jartzea aurreikusten du. Ares jaunak 135 bizkartzain jarri ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan emakumeak babesteko kontrazaintza lanak egiten.

Horrelako neurri solteek protekzionismoa eta paternalismoa dituzte oinarrian eta ez dute jendartearen eraldaketan laguntzen. Emakumeak eta bereziki indarkeria egoera zehatzak bizi izan dituztenak, biktima paperean jartzen dituzte, erabat ahulduz. Instituzioek askotan salbatzaile papera egokitzen diote euren buruei eta jendartearen haiek egiten dutenari itxaroten egon beharko luketela uste dute. Subjektu pasiboak bagina bezala tratatzen gaituzte, geure burua defendatzeko gaitasunik ez bagenu bezala, zer nahi dugun jakingo

ez bagenu bezala. Ahotza badugu ordea, eta zer nahi dugun ere jakin badakigu. Emakumeon hitzak egun daukana baino indar handiagoa hartu beharko luke. Emakumeon hitza kontuan hartzetik etorriko dira biktima paper hutsean ez gelditzeko pausoak.

Indarkeria sufritzen duen emakume batek beharrezkoak ditu urgentziako neurriak, hori egia da. Baina neurri hauek koordinatuak behar dute izan, eta ezin dira asistentziakoak bakarrik izan; emakumeon protagonismoa, duintasuna eta eskubideen jabetzea ekarri behar dute. Ikusi besterik ez dago Elena Calen hilketarekin zer gertatu den. Epaileak hiru urteko espetxe zigorra ezarri dio hiltzaileari, bere burua hiltzailatzat onartu duen gizasemeari. Urtebete espetxean egin eta lasai arrear ibiliko da kalean laster. Horrela, emakumeak babesgabetasunean jarriz eta bereziki, Elenaren duintasuna lur azpian utziz. Emakumeon eskubideen aitortza eta bermea helburu duen prebentzio lan handia dugu egiteko eta horretan hezkuntzan bada zer eginik. Mugimendu feministari bakarrik ez, eragile zein norbanakoei dagokie konpromisoak eta ardurak hartzea indarkeria sexistari aurre egiteko. Baina paternalismoetan erori gabe, arren, eta emakumeen duintasuna eta eskubide aitortza lehenetsiz. ©



Eider Elduaien Olazar
Tolosaldeko Bilgune Feminista

Gogoratzen dut nola Tolosan Berdinbide gizon taldea sortu zenean Bilgune Feministako kideok eurekin egin genuen lehen bilkuran, arraro oso arraro sentitu ginen. Aita alabatxoari iraskagaia ematera etorri izan balitzaio bezala sentitu ginen. Berdinbide osatzen duten gizonak adin bateko gizonak dira guztiak, eta gu, 30 urte azpiko emakumeak. Ideia eta asmo handiak zituen talde eratu berria euren, eta gu, gazteak izanagatik mugimendu feministan ibilbide bat egindakoak. Zorionez, bi taldeon arteko harremanak aurrera egin duen heinean, haserako zuzentzeko modu hori eta gure arteko harremantzeko era aldatu egin dira. Antza, beste begi batzuekin begiratzen gaituzte. Izan ere, ezinbestekoa da aurrean duzunari entzutea, eta haren hitzari zurearen balio bera ematea, harremana parekoa eta errespetuzkoa izan dadin.

Euskeran eune

Egilea: Amezketako Bertso Eskola
Irakaslea: Bixente Gorostidi
Doinua: Ai Ixabel, Ixabel

Abenduan 3an
euskeran eguna
bera degu euskaldun
egiten gaituna
dakinak hitz egin ta
ez dakin laguna
ea egiten degun
azkar euskalduna.

Abenduan 3an
euskeran eguna
hau da euskaldun denok
ospatzen deguna
hizkuntza aspalditik
degu ezaguna
ta galdu gabe eutsi
behar dioguna.

Abenduak hirua
egun mundiala
euskararen eguna
ospatzeko dala
gure ama hizkuntza
maite ta apala
zaindu dezagun denok
urrea bezala.

Tolosa inguruan
euskeraz ondoen
jendeak lehen sarri
halaxe zioen
kalean belarria
erne jarri ondoren
euskaldunena ea
izana dagoen.

Euskaraz bizitzen da
herri txikietan
ta erderaz gehiago
herri handietan
kultur aniztasuna
nabari hauetan
baina euskera ez dadila
galdu kaleetan.

Euskarari eusteko
dakinak hitz egin
eta ez dakienak
eginaz ahalegin
euskara behar degu
guk gurea egin
herri txikitan eta
handietan berdin.

Batzuk saiatzen dira
beste batzuk planto
beste batzuk badute
berriz lotsa pranko
herri txikitan gutxik
handietan asko
euskara ez galtzeko
ikasi beharko.

Denok hitz egin behar
genuke euskera
gora doala baina
ez al doa behera?
Erderaz entzuten da
hau, hori ta zera
ez galtzeko behar da
denon saiakera.

Euskaraz abestu ta
euskaraz jolastu
euskarakin lagunei
irri bat marraztu
erderarekin nahiz ta
sarritan nahastu
Euskal Herrin gaudela
ezin zaigu ahaztu.

Herri honen sorrera
da gure euskera
gure arbaso haiek
egindako aukera
inoiz iritsi ez dadin
euskeran galera
dena galdu aurretik
goazen saiatzera.

Belarri motzen batek
eta zenbait luzek
eraginda auskalo
nongo ta ze haizek
gatzelaniaz jazten
ditu gau ta goizek
jarraitzaile asko du
hemen Cervantesek.

Guk beti entzun degu
guztiei on egin
baina zer egin behar da
kontra daudenekin
hasi behar genuke
akuiloarekin
euskeraren herrian
euskera entzun dadin.

Hizkuntza bat nahi bada
indartsu mantendu
dakinak hitz egin ta
ikasten lagundu
ez dakinak dakina
kutsatu egiten du
bihotzak ez gaitzala
bidetik aldendu

GIPUZKOA BERRIKETAN

GUK ERE EUSKARAZ

2011ko abenduaren 3a
Euskararen Nazioarteko Eguna

Gipuzkoako Foru Aldundia



Abenduaren 2an, 16:30ean
Fronton kafetegian



galtzaundi
euskara taldea

Herritarren artea erabilera zabal

Galtzaundi Euskara Taldeak abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizun bezperan hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosa eta Ibarako ikastetxe, Aitzol Udal Euskaltegia eta Tolosako Udalarekin elkarlanean. Ekimen hauen guztien helburua herritarren ahotan euskara entzutea da.

Naiara Roldán de Aránguiz

Galtzaundi Euskara Taldeak, Hirukide, Laskorain, Samaniego, Orixe, Uzturpe, Tolosako Udala eta Aitzol Udal Euskaltegiarekin elkarlanean landu du mosaikoaz, mintzodromoaz, mahai-inguruaz eta "Eskerrak Zuri" aipamen berezien banaketaz osaturiko egitaraua. Elkarlana oinarri hartuta euskararen erabilpeneari eragitea bilatzen du euskara taldeak, ez soilik Euskararen Nazioarteko Eguna aitzaki hartuta urte osoan zehar baizik. Hala ere, jarraian Euskararen Egunerako

bereziki landutako egitarauaren berri ematen da.

Mosaikoa

Gazteenek emango diote egunari hasiera. Izan ere, goizeko 10.00etan Tolosako Beotibar Frontoian 250 ikasle inguru bilduko ditu Galtzaundiak "Euskaraz bizi nahi dugul" mosaikoa "marraztu" asmoz. Eguneko irudi sinbolikoa bilakatuko da hau. Hala ere, Joseba Antxustegietxartek, Hirukide ikastetxeko ordezkariak, prentsaurrekoan aipatu bezala, euskarari

bultzada ematea gizarte osoaren lana da: "euskarak behar duen bultzada, ez da bakarrik hezkuntzaren aldetik etorri behar, baita kaletik eta etxetik ere. Eskoletan egiten denak, kalean eta etxean bere isla izan dezan".

Uzturpe ikastola, Laskorain ikastola, Hirukide eta Samaniego ikastetxeetako ikasleek argazki eta mezu adierazkorra zabalduko dute Tolosan. Unerako propio aukeratutako musika ikasleen ahotsekin batera Tolosan entzungai egongo da.

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

...n euskararen ...tzea helburu

Mintzodromoa eta mahai ingurua

Arratsaldean, 16.30ean hasi eta 17.30ak bitartean euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenek aukera paregabea izango dute Fronton Kafetegian. Mintzodromoaren helburua, euskaraz hitz egiteko premia dutenei, ordubetez eta kafe bat hartuz, gune hori eskaintzea da. Euskara hutsean, euskararekin lotutako hiru gai ezberdin landuko dira ordubetez. Lehen gaiak, Tolosan euskararen erabilpenari egingo dio erreferentzia. Izan ere, egunerokotasunean pertsona ezberdinekin zein bitarteko ezberdinak erabiliz komunikatzen garela kontutan hartuta, lehenengo mintzaldian, Tolosan zein toki edota zein pertsonekin ez den euskaraz hitz egiten, mezuak zein hizkuntzatan bidaltzen diren, komunikabideak zein hizkuntzatan kontsumitzen diren eta tankerako gaiak landuko dira.

Bigarren solasaldiak kulturaren kontsumoaren hizkuntza hartuko du hizpide. Tartean, musika, zinea, liburuak, erakusketak, kultur emanaldiak... bertan elkartutakoak zein hizkuntzatan jasotzen eta kontsumitzen dituzten aztertuko da.

Eta azkenik, hirugarren gaiak euskararen erabilpena bultzatzeko proposamenak jorratuko ditu. Mintzlaguna eta mintzodromoa bera adibide baino ez dira izango. Bertan elkartutako euskaltzaleek proposamen berri bat baino gehiago plazaratuko dute.

Mintzodromoa aurrera eramanez ahal izateko lau pertsonen osatutako taldeak osatuko dira, eta talde bakoitzeko taldeki-deak 15 minuturen buruan aldatuko dira, gai bakoitza pertsona ezberdinekin lantzeko aukera eskainiz. Talde bakoitzean gainera dinamizatzaile lana burutuko duen pertsona bat egongo da, eta tartean parte hartzaileek herriko aurpegi ezagunak ere topatuko dituzte.

“Ezagun” hauekin beraz, kafea hartu eta euskaraz hitz egiteko aukera paregabea izango da.

Galtzaundik Mintzodromoan parte hartzeko gonbite zuzena egin die Mintzlagun egitasmoan parte hartzen duten kideei eta baita Aitzol Udal Euskaltegiko ikasleei ere. Mintzodromotik ateratako ondorio nagusiak arratsaldeko 18.00etan, Tolosako Udaletxeko areto nagusian aurkeztuko dira, mahai inguru formatuan. Aipatu mahai inguruan Hirukide, Laskorain, Samaniego eta Orixe ikastetxeetako ikasleek ere parte hartuko dute. Izan ere, ezaugarri berdineko Mintzodromoak antolatuko dituzte aste osoan zehar euren ikastetxeetan. Udaletxeko ekitaldia beraz, ideiak partekatze foro bihurtuko da.


Eskerrak zuri

Egunari amaiera emateko Galtzaudi Euskara Taldeak urtero legez “Eskerrak Zuri” aipamen bereziak banatuko ditu,



Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor
eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa



**BENTA
ALDEA**
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN



zure moda osagaien denda

Korreo Kalea, 3
Tolosa

euskararen normalizazioan, eremu ezberdinetan, lanketa berezia egin duten pertsona edota erakundeei eskerrak emateko. Hain zuzen ere, 2011. urtean zehar egindako lana kontutan hartuta eta orain arte burututako ibilbidea azpimarratu nahiarekin Tolosa Kantari ekimena, Baso-Lur enpresa eta egun euskara irakasle lanetan diharduten eta garai batean euskaldundu ziren norbanakoak saritu nahi izan ditu Galtzaundik "Eskerrak Zuri 2011" aipamen berezien bitartez.

• **Tolosa Kantari**

Badira hiru urte Tolosa Kantari ekimena martxan jarri zela: hileko azken larunbatetan 100 lagunetik gora biltzen dira Tolosako Alde Zaharrean euskal kantak abesteko. Ordudanik, Tolosa Kantariren baitan bildutakoek euskarari mesede baino ez diote egin kantuzalatasunak

razi Antton Agirrezabalak eta Ebaristo Elduaienek, ekimenaren partaideek. Anttonek argi dauka saria aintzatespen gisara ulertu beharra dagoela, "lana ondo egin dugunaren seinalea da".

Tolosa Kantariren baitan bildutako kide guztiak euskaldunak ez badira ere, parte hartzaileen arteko hizkuntza euskara da, euskarak erabateko presentzia dauka bertako harremanetan, aukeratutako abestietan.... Euskararen presentziari dagokionean %100aren bila doazela azpimarratu nahi izan du Ebaristok, "erabat euskaraz egitera". Are gehiago, euskalduna ez den jendea Tolosa Kantarira gerturatu eta euskaraz abestea txalogarria da Ebaristoren ustetan: "nahiz euskaraz ez jakin, euskaraz abestera etortzea guretzako interesgarria da, zerbait sentitzen duenaren seinalea".

Tolosa Kantarik larunbateko saioak prestatzeko asmoz ostegunetan entseguak antolatzen ditu. Entsegu hauen jatorria, parte hartzaile askori aldi berean irakurtzea eta kantatzea zaila suertatzean datza. Euskaldun izanda ere, alfabetatu gabeko jende asko egonik, euskaraz irakurtzea zaila suertatzen zitzaiea aitortu dute parte hartzaile biek. Ebaristok metafora zuzena luzatzen du egoera horren aurrean: "begi erdaldunak". Entsegu hauek "begi erdaldun" horiei aukera eman die "euskarara jartzen", "begiak euskaraz irakurtzera ohitzen ari dira", dio Ebaristok.

Honakoa euskaldun alfabetatugabekoei luzatutako laguntza, baina euskaldun ez direnak euskarara gerturatzen ere ekimen ezberdinak jorratzen dituzte, abestien esanahiaren berri emanez, erantzunak eus-



karaz modu errazean plazaratuz edota euskarazko entzumen lantzeko aukera baliagarria aurkeztuz.

Lanketa eginez hilabete-ko azken larunbatetan Tolosan euskal doinu eta ahotsak entzunaraztea lortzen dute. Euskarazko abestiek, Tolosan hurrengo zita, abenduaren 31n izango dute. Orduan, gainera, Antton Agirrezabalak eta Ebaristo Elduaienek zehaztu moduan 30 lagun berri izango dituzte. Zazpi nazioetako herritarrek Tolosa Kantarirekin bat egin eta euskaraz abestuko dute Tolosan, Petra Elser euskaltzalearen ekimenez.

• **Baso-Lur enpresa**

"Eskerrak Zuri" aipamena jasoko duen aurtengo hurrengo aukeratua Iruran kokaturiko Baso-Lur enpresa da. Izan ere, 2011. urtean zehar eta baita aurreko urtetan ere euskararen inguruan emandako aurrerapausoen esker on gisara ulertu beharra dago. Nekazaritza tresneria saldu eta konpontzen duen enpresa honek azken urteotan pauso garrantzitsuak eman ditu enpresa munduan euskara zabaltze aldera.

Baso-Lur enpresak euskararekiko erakutsitako konpromisoa Galtzaundik Irurako Udala-



bultzatuta. Honako errealitatea kontutan hartuta, Galtzaundik "Eskerrak Zuri" aipamen berezia ematea erabaki du. Aipamenaren berri emateko garaian poztasuna baino ez dute adie-

rekin sinatutako hitzarmenean du oinarri: euskararen erabile-raren normalizazioa sustatzeko konpromisoa hartu zuten enpresen artean kokatuta baitago Baso-Lur.

Pello Beldarrain-ek, Baso-Lur enpresako kudeatzaileak, poztasunez eta ezustean hartu du "Eskerrak Zuri" aipamenaren berri, baina beti ere enpresak euskararekiko azaltzen duen konpromisoa azpimarratuz: "guk euskararen munduari ahal den gehiena eusten diogu eta horren inguruan beti egiten dugu egin litekeen guztia". Pello Beldarraini eta Baso-Lur enpresari buruz berri gehiago izateko 14. orrialdeko elkarrizketara jo.

• Euskara irakasle eskaldun berri

2011ko "Eskerrak Zuri" aipamen berezi hauetan Galtzaundik tarte berezia egin nahi izan die egun batean euskaldundutako euskara irakasleei egindako lanagatik. Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiak datoren ikasturtean 30 urte beteko ditu eta ibilbide luze horren baitan Miren Atxaga, Amando Hernandez, Jabi Diaz eta Kristina Uranga euskara irakasten jardun dira. Guztiak, era batera edo bestera, momentu batean euskara euren egitea erabaki zuten; euskaldunduz, euskara ikasiz, alfabetatuz edota euskara berreskuratuz.

Miren Atxaga iruindarrari albiste eman diogunean pozez hartu eta eskertu du: "bazen garaia gutaz oroitzeko; ahalegin hori egin genuen eta egiten dugun pertsonen gogoratzeko". Euskara irakasle izanik Atxagak argi dauka euren produktua "euskaldun berriak" direla eta horri erreferentzia egitea garrantzitsutzat jotzen du. Bere

kasuan Franco hil aurretik, 19 urte zituela, euskara ikastea erabaki zuen bere barnean sorturiko arazoari irtenbidea eman nahian: "sinismenei heldu eta euskara ikasi edota pentsamenduz aldatu beharra zegoen". Ikasteari ekin zion Iruñeko Alde Zaharreko Campion euskaltegian gauetz, lanetik aterata. Ondoren, Etxarri-Aranatzen "barne-tegi" hastapen batean egon eta udan baserri batera joan zen euskararen barneratzera. Orduko ikasketa metodoak eta gaur egungoak erabat aldatu direla aitortzen du berak, erabat profesionalizatuz. Hala ere, ikasleen motibazioa ere erabat aldatu egin da urte hauetan guztietan. Izan ere, gaur egungo ikasleen gehiengoak euskara perflak eskuratzeko ekiten dio euskara ikasteari.

Kristina Urangaren kasua bestelakoa da; euskaldun zaharra izanik, garai bateko Tolosan erdara nagusi izateak bultzatu zuen euskara ikasten hasi eta berreskuratzen. Amona etxean bizi zela eta gehien bat berarekin mintzatzen zen euskaraz, baina kaleko eta eskolako giroak erdararekin kutsatu zuten. 18 urte zituela gizartean zegoen mugimenduak lagunduta euskara ikasteari ekin zion eta geroztik, duela 30 urtetik hona, euskara irakasle lanetan jardun da Tolosako Aitzol Udal Euskaltegian.

Euskara irakasle euskaldun berri hauen lana goraiatzeko aukera izango dugu "Eskerrak Zuri" ekimenean, abenduaren 2an, arratsaldeko 19.30ean Tolosako udaletxeko areto nagusian.



Galtzaundik prestatutako egitaraua

Abenduak 2, ostirala

Mosaikoa

Ordua: 10.00

Tokia: Tolosa, Beotibar frontoia

Parte hartzaileak: Uzturpe ikastola, Laskorain ikastola, Hirukide eta Samaniego.

Irudia: Ikastetxe ezberdinen parte hartzearekin "Euskaraz bizi nahi dugu" mosaikoa.

Mintzodromoa

Ordua: 16.30-17.30

Tokia: Tolosa, Fronton kafe-tergia

Parte hartzaileak: Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duten herritarrak.

Gaia: Euskara hutsean, euskararekin lotutako hiru gai landuko dira (Tolosan euskararen erabilpena, kulturaren

kontsumoa zein hizkuntzatan burutzen den eta euskararen erabilpena bultzatzeko proposamenak).

Mahai-ingurua

Ordua: 18.00

Tokia: Tolosa, Udaletxeko areto nagusia

Gaia: Mintzodromotik eskuraturako ondorioak

Eskerrak zuri

Ordua: 19.30

Tokia: Tolosa, Udaletxeko areto nagusia

Parte hartzaileak: Eskerrak Zuri aipamen bereziak emango zaizkie euskararen normalizazioan, eremu ezberdinetan, lanketa berezia egin duten pertsona edota erakundeak.



Galtzaundi 354
11ko abenduak 2

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA

Argi lanak Iluminazioa Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGUROS BILBAO

Aholkularitza integrala

Laskorain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin Eceizabarrena

Instalazio erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Euskararen Eguna ospakizun bihurtuta eskualdean barrena

Berrobi, Ikaztegieta, Orendain eta Tolosa herria bera Euskararen Nazioarteko Egunaren harira sortutako ekimenen ospakizunetan murgilduko dira datorren abenduaren 3an, larunbatean. Batzuek gainera festa aitzinatu eta ospakizuna abenduaren 2ra, ostiralera, aurreratuko dute.

Erredakzioa

Asko eta asko izango dira abenduaren 3 egun sinboliko hartu eta ospakizun bihurtuko duten pertsonak. Eskualdeko erakunde, elkarte eta norbanako ugari 1949an Eusko Ikaskuntzak Euskararen Nazioarteko Eguna ezartzeko hartutako erabakia gogoan hartu eta festa euren a egingo dute.

Berrobi, musika gauaren protagonista

Berrobiko herriak goizetik iluntzera bitartean egun osoko egitaraua antolatu du Euskararen Egunaren ospakizun gisara.

Goizeko 11.00etan hasita gaztetxoenen txanda izango da, ume jolasak eta Euskaraokea izango baitira Uzturre mendiaren hegoaldean kokaturiko herri honetan. 14.30ean herri bazkarian bilduko dira herritarrak, 25 euroren truke bazkaria izango dute bertaritzen direnak, bazkaria gainera txiste eta bertsoez alaiturik egongo da.

Arratsalde partean, umei zuzenduriko ekitaldia izango da Berrobiko eskolan. Ekimenean parte hartuko duten gaztetxoek ahozko tradiziozko zenbait ipuin bertatik bertara entzun eta disfrutatzeko aukera izango dute. Eguneko ekitaldiek aurrera egingo da, gosea sortu daitekeela eta herriko talogileen esku talo jana izango da, arratsaldeko 18.00etan hasita.

Gau partean, musikak hartuko du protagonismoa. Berrobiko Gaztetxea Euskararen Eguna honi musika banda jartzeaz arduratuko da. Gaueko 22.00etan hasita, Segoviako Ihesa eta Glaukoma Sound System taldeen kontzertuek publikoa dantzan jarriko dute. Segoviako Ihesa Urretxu-Zumarragan sortutako taldea da. Punk-ska musika da taldearen abiapuntua eta Berrobiko

Gaztetxean abenduaren 3an entzungo da. Segoviako Ihesak Glaukoma Sound System talde tolosarrari testigua pasatzen dionean, orduan reggae eta ska doinuak nagusituko dira.

Ikaztegieta, gaztetxoenei zuzenduta

Abenduaren 2a da Ikaztegieta euskarari omenaldia egiteko aukeratutako eguna. Jaia eguerdi aldean hasi eta gaua bitartean luzatuko da eskualdeko herri honetan. Gaztetxoek egunerako propio sortutako emanaldiekin egunari hasiera emango diote Ikaztegieta herriarrek. 14.30ak eta 16.00ak bitartean herri eskolako haurrek herritar guztiei eskainitako jaia egingo dute herriko eskolan bertan. Ondoren, ipuinen txanda izango da. Festa Udaletxeko aretora leku aldatu eta bertan eskainiko zaie herritarrei ipuin kontalari saioa. Indarberritzeko asmoz, ipuin kontalariaren ondoren txokolate beroa eskainiko zaie haurrei.

Gau partean, 21.00etan hasita bertako bizilagunak Ikaztegieta Ostatuan bildu eta euskal afaria izendatutakoa dastatzeko aukera izango dute.



Tolosa, gazteek aurrera eraman-
dako ekimena

Gazteen inplikazioaz kezka-
tzen eta kezkatzen direnak erant-
zuna izango dute Tolosan dato-
rren abenduaren 3an. Izan ere,
gazte talde batek antolatuta eki-
taldi ezberdinez osatutako pro-
gramazioa antolatu dute herritar
guztiei zuzenduta Euskararen
Egunerako. Tartean festarako,
aldarrikapenerako eta hausnar-
ketarako aukera egongo da.

Joxean Artzeren hitz ezagu-
nak hartuta, "hizkuntza bat ez da
galtzen, ez dakitenek ikasten ez
dutelako, dakitenek hitz egiten
ez dutelako baizik", euskararen
erabileraren garrantzia azpima-
rratu nahi izan dute. Horretarako,
jarraian zehaztutako egitaraua
prest dute abenduaren 3rako,
larunbaterako.

Triangulo plaza eta Plaza Ber-
ria tolosar gazteek euskaltza-
leen bilgune bihurtuko dituzte
abenduaren 3an. Goizetik txisto-
rra pintxoak eta edaria dastatze-
ko aukera egongo da Triangulo
plazan. 11.00etan, Plaza Berrian,
euskararen inguruko hitzaldia
eskainiko dute, eguneko lehen
ekimen gisara. Ondoren Plaza
Berrian jarraituz bazkaria eta ber-
tso saioaren txanda izango da.
17.30eko ekitaldiaren ondoren,



18.00etan poteoari ekingo diote
Plaza Berritik abiatuta. Ordu eta
toki berdinean txokolate jatea
ere izango da bertaratzen dire-
nentzat. 20.00etan ogitartekoan
salmentari ekin ondoren, musi-
kak hartuko du protagonismoa
Plaza Berrian, kontzertuak eta DJ
Argitxo gunea girozaren ardu-
radun bilakatuz.

Orendain, euskal jantziak

Orendainek abenduaren 3an
bertan hitzaldi-tailer batekin

ospatuko du Euskararen Eguna.
Arratsaldeko 17.30-19.30 bitar-
tean Ane Albisurrek Orendaingo
udaletxean "Euskal jantzi tradi-
zionala azken 100 urte hauetan"
hitzaldia eskainiko du. Mintzal-
diaz gain buruko zapiak, gonak
eta mantalak nola jartzen diren
erakutsiko zaie bertaratzen di-
renei.

Tailerraren ondoren, kantuez
alaitutako gaztain-jana egingo
dute Orendaingo bizilagunek
Eltxoak Elkartean. ©

ZALBIDE

Tolosa Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoan erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA



HALCON
BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



errrotatxo
okindegia

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038



Baso Lur enpresa, "Eskerrak Zuri"

Pello Beldarrain

"Euskararen munduari ahal den gehiena eusten diogu"

Pello Beldarrain Iruran kokaturiko Baso Lur enpresako kudeatzailea da. 50 urteko Billabonatarra, euskalduna. Nekazaritza tresneria saltzen eta konpontzen 30 urtez jardun den honetan enpresa munduan euskarari behar duen toki ematen lan egin du. Bere jarrera eta lanketa kontutan hartuta, aurtengo "Eskerrak Zuri" aipamenaren jasotzaile izatea erabaki du Galtzaundik.

Naiara Roldán de Aranguiz

2008. urtean Galtzaundi Euskara Taldeak lehenengoz Irurako Udalarekin enpresa mundua euskalduntzeko hitzarmena sinatu zuen. Urtetik urtera ekimen horren baitan hainbat enpresek aurrera-pausoak eman eta euskara, alor guztietan, enpresako hiz-

kuntza bihurtu dute. Baso-Lur enpresak adierazitako jarrera positiboak eta indarrean jarritako ekintzek "Eskerrak Zuri" aipamenaren jabe bihurtzea lortu dute.

Urte hauetan guztietan, konpromisoetan aurrera egin du Baso-Lurrek. Esaterako, hizkuntza paisaiari dagozkion konpromisoak ongi bete ditu (erakundearen irudian euskara lehenetsiz), bezeroarekiko idatzizko harremanak euskaraz eskaintzen ditu (euskara hutsean eta bezeroak eskatuz gero gazteleraz), bezeroarekiko ahozko harremanak euskaraz lantzen ditu (lehen hitza euskaraz...), barne dokumentazioa euskarara itzuli du (euskara zerbitzuaren bitartez). Honakoak, egindako lanaren adibide baino ez dira, Irurako Udalaren eta Galtzaundiren artean jorratutakoak.

Aipatu hitzarmena dela medio, Galtzaundik Baso Lur enpresa askotan bisitatu badu ere berriro ere bertako kudeatzaile Pello Beldarrainekin biltzea erabaki du, enpresako eguneroko martxa ikusi eta berarekin solasaldia izateko asmoz.

Egizu Baso-Lur enpresaren aurkezpena. Zer eskaini, noiz sortu, langile kopurua, bezero mota...

Baso Lur enpresa nekazaritza -lorezaintza, basogintza...- tresneriaren inguruan zerbitzua eskaintzeko sortu genuen. Urte mordo bat dararamagu; 30 urte inguru eta lanean jarraitzen dugu. Aurre-

na, aurreneko urtetan, Anoetan kokatu zen enpresa baina orain Iruran gaude.

Bezeroei dagokionean, gehiengo baserritarra bada ere mota guztietako bezeroak izaten ditugu. Adibide bat baino ez da, jende partikularra, txaletetan bizi eta lorezaintza lantzen duena -belarra, fruta-arbolak edo baratza lantzen duena-. Bezeroak normalean eskualdekoak badira ere, Nafarroa ere ukitzen dugu, baita kostaldea ere.

Baso-Lur-en bi langilek eta nik, kudeatzaile lana eginez, lan egiten dugu. Eta eskaintzen dugun zerbitzuari dagokionez, Iruran dugun lokalean bertan edo etxeetara zerbitzu zuzena ere bideratzen dugu, bezeroak behar duen tokira mugitzen gara.

Nola hartu duzue Baso-Lur-en "Eskerrak Zuri" aipamen berezia jasotzearen berria, euskarari emandako bultzadaren eskerra?

Ezustean jaso dugu. Pentsatzen dut, notizi txarra ez dela izango baizik eta kontrakoa, ona izango dela. Ikusiko dugu zer dakarren. Berria atzo bertan hartu nuen eta langile eta bezero artean komentatzeko aukerarik ez dut izan.

Guk euskararen munduari ahal den gehiena eusten diogu eta horren inguruan beti egiten dugu egin litekeen guztia. Behin ere ez dugu tankerako aipamenik izan eta ez dakit zer nolako ondorioa ekarri dezakeen. Positiboa izango dela seguru.



Irurako Udalaren eta Galtzaundiren arteko hitzarmenaren bitartez enpresak euskalduntzeko planean murgilduta diharduzue 2008az geroztik. Baina bertan parte hartzeko lehen dei hura jaso zenute-nean, zer pentsatu zenuen?

Egiteko lana bazegoela pentsatu genuen. Nik erdaraz ikasi dudala kontutan hartuta, eskola erdaraz izan nuela kontutan hartuta, lana egiteko bazegoen.

Gure nahia tailerrak bezeroari eskaintzen dizkion idatzizko guztiak -eskuorri eta karte-

lak- gutxienez euskaraz izatea zen. Pixkana-pixkana euskara azaltzen joan da. Gaur egun, nahi gabe, baina lan guzti horiek euskaraz egiten ditugu. Esaterako, lan orriak euskaraz erabiltzen ditugu, erdarazkoak ere baditugu baina ez ditugu hartu ere egiten, esku-orriak ere euskarazkoak erabiltzen ditugu. Euskarakoekin ohitura dugu. Elebidun idazkirik ez dugu erabiltzen, euskarazkoa edo erdarazkoa bezeroaren arabera. Gehiena, hala ere, euskaraz. Oraingoz ez dugu arazorik izan, baina baten ba-



tek, behin edo behin, eskatzen badu erdaraz ematen zaio.

Euskararen erabilerak ba al du eraginik bezeroengan edota enpresaren irudiarengan?

Gu euskaldunak izatetik, oinarri horretatik abiatuta, euskarak lehentasuna izan beharko lukeela uste dugu. Dударik gabe guretzat euskara lehentasuna da. Honek irudiarengan eta bezeroarengan indarra dauka eta.

Batetik, gure sektorea zein den ikusita, nekazaritza munduaz ari garela ulertuta, irudi euskalduna ematea garrantzizkoa dela pentsatzen dut. Eta bestetik, euskaldunak garenaz, oinarri hori kontutan

hartuta, gu euskararen alde egoteko arrazoia hori da.

Inguruko enpresetan eta enpresa munduan oro har, euskarak zer nolako garrantzia duela uste duzu?

Irurako inguru honetan, gu kokatuta gauden zonalde honetan, enpresa munduan dagoen giroa, egia esan, gehiena euskalduna da. Baina bestetik, enpresa mundua oro har hartuta euskara gutxi erabiltzen dela pentsatzen dut.

Esaterako, gure hornitzaile gehienak penintsula mailakoak direnez beti erdararekin mintzatu behar izaten dugu haiekin. Baina badugu Bizkaian hornitzaile euskaldun

bat, eta telefonoz deitzeko garaian euskaraz erantzuteak harritu egiten zaitu. Hornitzaile euskalduna izatea deigarria egiten zaigu, poztasuna sortzen du.

Baso-Lur enpresari dagokionean, zertan ikusten duzue aurrerapausorik nabarmena eman duzuela? Zertan izan duzue arazorik handiena?

Denetik pixka bat egin behar izan dugu. Lanik gehien gehiena eman diguna adibidez, lan orria euskaraz ondo osatzea izan zen. Azkenean hala ere, pixkana-pixkana enpresako material guztia edo gehiena euskaratzen joan gara.

Dokumentazio mailan, orri asko direnean, zailtasun gehiago ikusten dugu baina hauek gehien bat barne-dokumentuak izaten dira. Guk, egia esan, dokumentazio gutxi igortzen dugu. Faktura ez ezik, ez dugu dokumentu gehiegirik eman behar izaten. Hala ere, dokumentazio mardul hori euskaratzeko garaian -hitzarmena medio- laguntza jasotzen dugu.

2011. urtean ezarritako konpromisoetako bat "langile taldearen motibazioa eta kontzientzia susteratzea, gizar-tearentzat eta bezeroarentzat euskarak duen balio erantsiaz eraginez" izan da? Erronka zaila?

Ez, egia esan, badugu suertea langileak euskaldun peto-petoak garelako eta erabat euskaraz egiten dugulako. Horretan ez dugu inolako trabarik ikusten, erraztasuna behintzat badugu euskaraz mintzatzeko.

Udaberrian langile bat edo beste ikasketa kontratuarekin ekartzen dugunean, orduan ere saiatzen gara gure artean euskaraz egiten, haiek euskara gutxi erabiltzen badute ere. Ez dago arazorik euskara hitz egitera bultzatu eta eguneroko martxa eta konpromisoak euskaraz egiteko. Hala ere, ez dugu baldintzarik jartzen langilea euskalduna izan zedin nahiago izaten dugu euskalduna izatea. Ez dugu mugarik jartzen, baina normalean euskaldunak tokatu zaizkigu.

Zer gomendio luzatuko zenieke eskualdeko gainerako enpresei, enpresa-mundua eta euskararen inguruan?

Pixkana hastea gomendatuko nieke. Hasiz gero, gerta daiteke, konturatu gabe, egun batean bidea eginda aurkitzea, pixkanaka egindako lanaren ondorio. Behin ere hasten ez bazara, trabarik handiena alferkeria eta esperientzia falta izaten dira. Baina pixkana-pixkana hasiz gero pausuak ematen direla ikus daiteke. Orduan, esan daiteke merezi izan duela. Aurrera egitea da garrantzitsua.

Inbertsio minimo batzuetatik hasi daiteke. Adibidez, aurreneko begiradan ikus daitezkeen kartelak, esku-orriak... euskaratzen. Hori ez litzake izango beste munduko gastu eta inbertsiorik. Epe luzera begira, bakoitzak ikusi beharko du zein pausu eman nahi dituen.

Baina euskaldun bati enpresaren sarreratik euskaldun irudia ikusteak poztasun handia ematen dio.

Irakurlearen begietatik



Ione Gorostarzu

Irakurlea

Zu bezain ahul naiz ni, irakurle, eta gu bezain ahul liburu honetan aurkituko ditugun gizon-emakumeak ere. Hamabost ipuin motzekin osatua da Karmele Jaioren bigarren ipuin bilduma hau. Tartean eleberrira egin zuen jauzi gasteiztarrak Amaren eskuak lanarekin, eta honako liburu hau, berriz, Hamabost zauriren ildotik dator. Bere lehen ipuin liburu horrek bezala, oraingoak ere giza harremanak ditu hizpide, eta bikoteak, familiak zein lankideak aurkitzen ditugu orri hauetan. Harremanak eta ezintasunak, pil-pilean.

Karmele Jaio, zu bezain ahul

Gustuko izan ohi ditugu identifikatzen gaituzten istorioak; berdintsuak izaten dira, azken finean, baten eta bestearen ahulguneak. Horrela, askori gertatu zaigu txikitan mespretxuz begiratzeko genion ikaskidea, eta -aitortzeak min ematen digun arren- iseka egiten geniona, orain gu baino ederrago-azkarrago-zoriontsuago ikustea, eta orain goitik behera ez, behetik gora begiratu behar izatea eta zu zeu sentitzea errukarri. Edota, nori ez zaio gertatu Gabonetako familia bazkari-afari batean itota, ernegatuta, ihes egin nahien sentitzea, alkoholak lozorroan ziren mamuak iratzarri ostean? Horrelako kasuak, eta gehiago, topatuko ditugu Karmele Jaioren liburu honetan. Egunerokotasunean topa ditzakegun pertsonak, egoerak eta sentimenduak agertzen dira orri orri, eta, gainera, ipuin asko bigarren



pertsonan idatziak egoteak enpatia hori areagotzen du.

Aipagarria da, gainera, ipuin askotan nabaritzen den iraganaren pisua; denborak maitasuna, edertasuna, askatasuna, idealak lapurtu dizkie protagonistari askori, eta, bat-batean, orainera datozkie iraganeko printzak, ezerezetik bezala.

Pertsonaien barnea arakatzen duten ipuinak izanda ere, gustatu zait protagonis-

tek, sarri, euren burua ikusten dutela kanpoko elementuetan; horrela, zurrutean bere bakardadea ahaztu eta alkoholak kantari jarriko ote duen edaten duen enpresaria kilker sentituko da, edota gaztaroan baztertuta eta jartzatua izan zen emakumea ipar haize gogorretan hazitako geranioa bezain eder agertuko zaigu. Gure begirada inoiz ez da neutrala eta objektiboa, izan ere, eta barruan duguna ikusten dugu kanpora begira jarrita ere. Horrela, gu ere, barnean dugunaren arabera, liburu hau irakurtzerakoan identifikatuago sentituko gara batekin edo bestearekin; bikotekidea engainatzen duenarekin ala engainatua sentitzen denarekin, haurrik izan ezinak esutzen duen amarekin edota orain urte asko bere atzetik ibili zenaren aurrean oraindik desiragarri sentitu nahi duenarekin...

Baina, era batera edo bestera, atseginez irakurtzen den ipuin bilduma dela esango nuke; izan ere, denok ere antzeko egoeretan aurkitzen gara ahul, eta, gainera, irakurle, banago ahulezia hori ukatzea ote den ahulkeriarik handiena.

“O+Hatz”en saio didaktikoa abenduaren 2an Ibarra

Ion Garmendia:

“O+Hatz-ek pausu berri bat eman du, liburu-disko didaktikoa”

Datorren abenduaren 2an, ostiralean, Ion Garmendiak eta Iñaki Plazak euskal tresnei buruzko saio didaktikoa eskainiko dute Ibarra Benito Izagirre kultur etxean, arratsaldeko 20.00etan hasita. “O+Hatz” proiektuak geldialdia egingo du Ibarra, hainbat erronketan murgilduta dagoen honetan. Azpimarragarriak 2012ko udaberrira begira bigarren diskoa kalean egotearen aurreikuspena eta ikastetxe zein musika eskolei zuzendutako disko-liburu didaktikoaren prestaketa.

Naiara Roldán de Aránguiz



Zer eskainiko du “O+Hatz”ek abenduaren 2ko Ibarra saioan?

“O+Hatz” proiektuaren baitan zati ezberdinak lantzen ditugu, denak euskal tresnetan oinarrituta. Ibarra, esaterako, euskal musika tresnei buruzko kontzertu didaktikoa eskainiko dugu. Honakoa ez da kontzertu arrunta izango. Bertan musika tresnak azalduko ditugu, musika tresnak bertatik bertara ikus daitezke: de-

taileak esplikatu –nola egin, nola jo, zer musika egiten den, zer musika egiten den tradizionalki...-.

Azalpenen ondoren, musika tresna hauek jo egiten ditugu; bai modu tradizionalarekin- eta baita ikuspuntu berria landuz, jotzeko beste modu bat eskainiz –gure abesti propioak- .

Saio hauek antolatzearen ideia eta abiapuntua nondik sortu

zen? Zein da honako saio hauen helburua?

Saioaren helburua euskal musika tresnak jendearengan ahalik eta gertuen eramatea da. Hori dela eta, saio hauek, ahal dela, ez ditugu eszenatokietan lantzen. Ikuslegoa eta gu maila berdinean egotea gustatzen zaigu, jendea tresna horietatik ahalik eta gertuen egoteko. Helburua jendeak tresna hauek gertutik ezagutzea da; modu atseginean –ez liburu irakurri- tresnei buruzko informazioa jasotzea, tresnak ukituz.

Azken finean, tresnak ezagutaraztea da gure helburua. Adibidez, askok eta askok alboka zer den ez dute ezta jakin ere egingo, izena entzunda izan dezakete baina ez nolakoa den, jendeak ez daki trikitixa batek barrutik nola funtzionatzen duen...

Abiapuntuari dagokionez, Iñaki Plazarekin 2004an txalaparta jotzen hasi nintzen.

Txalapartari bikote bezala talde askorekin ibili ginen baina txalapartaz gain beste musika tresna asko jotzen genituen. Nik txistua, alboka eta panderoa jotzen ditut. Iñakik ordea trikitixa, panderoa eta beste perkusio tresna asko jotzen ditu. Orduan, bion artean gaur egun erabiltzen den euskal musika tresna gehiengoa jotzen genuela ikusi genuen. Zerbait egin genezakeela pentsatu genuen. Orduan hasi ginen gure proiektua martxan jartzen.

Alde batetik saio didaktikoa lantzen ditugu. Bestetik, kontzertuak eta horri lotuta, diskoa ere badago. 2009. urtean lehena kaleratu genuen eta orain bigarrena prestatzen ari gara. Horre-



taz gain, musika tresnei buruzko ikastaroak ere eskaintzen ditugu.

Saio didaktiko hauek nori zuzenduta daude, adin muga berezirik?

Lekuaren arabera moldatzen ditugu. Egia esan, askotan ikastetxetan eskaintzen ditugu. Kasu horretan, saioa moldatu egiten dugu. Adinaren arabera diskurtsoa bera moldatu egiten dugu. Saioaren helburua berdina edo oso antzekoa bada ere, maila da aldatu egiten duguna, zorrotzago edo sinpleago eginez.

Zerekin harritzen da gehien publikoa?

Kanpoko tresnekin harritzen da gehien publikoa. Izan ere, saioaren bigarren zatian euskal tresna tradizional horiei gure ikuspuntua ematen diegu, gure erreperitorioa jotzen dugu. Erreperitorio hori jo ahal izateko bertako tresnez gain kanpoko beste tresna batzuk sartzen ditugu. Indiako tabla, bateria, stil drum izeneko tresna... Normalean jendeak ez ditu tresna hauek ezagutzen. Tresna horiek ikusita, soinua entzunda, jendea oso harriruta geratzen da.

Bigarren diskoa aipatu duzu. Zer aurreratu dezakezu?

2012an kaleratuko da, asmoa udaberri aldera kaleratzea da. Kolaborazioen asunto batzuei buruz oraindik hitz egiten gabilta. Bulego kontuak, asunto burokratikoak tartean daude baina udaberri aldera kaleratzea espero dugu. Izan ere, disko bat kaleratzea ez da soilik abestiak egin, grabatu eta kaleratzea. Bestelakoak ere izaten dira eta horietan murgilduta gaude.

Disko berriaz gain, "O+Hatz" proiektua bestelako ekimen berriren batean murgildurik al

dago?

Diskoaz aparte, material didaktiko bat lantzen ari gara, dagoeneko martxan jarri dugu. Proiektuaren pausu berri bat da. Material hau ikastetxe eta musika eskolei zuzenduta dago. Liburu-disko formatuan lantzen hasi gara. Euskal abesti batzuk moldatuta ageri dira bertan, bertako tresnekin jo ahal izateko partitura liburu ere eskainiz. Material hau bi erataria landu ahal izango da: ikastetxean zuzenean irakasleek edota musika tresna jotzen duten ikasleek landuz, disko eta partitura liburuaren bitartez. Eta bestetik, gu ere ikastetxetan zuzenean aritu gaitzke material honekin gure saioa eskainiz.

Zer nolako maila eskaintzen da ikastetxetan musikari dagokionean?

Denetatik dago. Bai ikastetxetan eta baita musika eskoletan. Azkenean zaila da ere zehaztea zer den ikastetxe batean, musika irakasgai landu behar dena. Nik uste oinarritzko ezagutza bat beharrezkoa dela; gehienetan, hala ere, lantzen dela uste dut. Baina alde handiak egoten dira ikasleen artean; ikastolatik kanpo musika eskolara doan ikaslea normalean aurreratuago dago. Orokorrean, nahiko ondo ikusten dut. Hala ere, musika tresna jotzen hasten den horretan burubelarri sartu beharra dago, bakoitzaren esku dagoen kontua da.

Ibilbide luzea daramazue zuk eta Iñaki Plazak, batera zein bakoitza bere bideari ekinez. Nolako da zuen arteko harreman musikala?

Urrutikoa. Bera Urduñan bizi da. Distantziagatik konplikatua da, bion artean 123 kilometro daude. Aurreko diskoan distantzia horri abestia eskaini genion, "123 kilometro", nire etxetik bere

etxera dagoen distantzia, hain zuzen ere. Hala ere, elkarrekin erabat egoten gara, entseguak direla, kontzertuak direla... Momentu honetan musikalki egiten dugun ia guztia elkarrekin egiten dugu.

"O+Hatz" taldeaz gain, zer nolako bestelako proiektuetan zaudete murgildurik?

Urte batzuetan Kepa Junkera, Ibon Koteron... taldeetako musikari gisa jarraian jotzen arituz ginen. Momentu honetan, gure proiektua martxan jarri genuen momentutik, gurean zentratu gaude. Kolaborazioak egiten ditugu, guk ere gainerakoei gurekin jotzeko eskatzen diegun bezala. Adibidez, Asturiaseko Tejedor taldeak grabatutako disko guztietan kolaborazioak egin ditugu, txalaparta sartu nahi izaten du. Tejedor taldeak gurekin ere grabatu zuen.

Coetus izeneko talde batekin ere kolaborazioan gabilta, penintsula mailako perkusio taldea da. Haiek eskaintako kontzertu batean jo genuen eta orain diskoan parte hartzeko eskatu digute. Abendua hasieran Bartzelonara goaz Coestusekin abestia grabatzera.

Talde batzuekin etengabean harremanetan bagaude ere momentuan gure istorioarekin, "O+Hatz"ekin jarraitzen dugu.

Ibartar batentzat Ibarren bertan saioa eskaintzeak esanahi berezirik al dauka?

Beti esaten da, topikoa da agian, baina etxean jotzea beti da pozgarria. Orain dela 3 bat urte San Bartolemeko festetan ere kontzertu bat eskaini genuen. Beti izaten da berezia; badakizu bertan dagoena jende ezaguna dela. Ia abenduaren 2ko saiora jende ugari gerturatzen den... ©

Errotulazioa & inudía
Vicente
 www.rotulosvicente.com
 943 69 02 94
 taller@rotulosvicente.com
 Lekebar bialara 25, 1-04 atea
 20271 Irua (Gipuzkoa)

Saldias Miguel
CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
 N. D.G.S. J.1759
 Bizitaseguruak
 Kotxe-aseguruak
 Istripuak
 Gaiotasunak
 Ospitalizazioak
 Subsidioak
 Lan-istripuak
 Enpresa txiki eta ertainak
 Erantzukizun zibila
 Etxe-aseguruak
 Denda-aseguruak
 Erreirioak
 Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
 Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
 Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 www.saldias-miguel.com

01001001
 00111100
 00111100
 00111100
 00111100

Tolosa Bit
 Informazioa & Zerbitzuak
 Ordenagailuak eta konputatzaileak
 Egitea eta jarduera teknikoak
 Masterrak

Oria kalea, 14-behea
 Tolosa - Tel.: 943 676 156
 Faxa: 943 016 857
 tolosabit@facilnet.net
 www.tolosabit.es

irakurri entzun Ikusi

De Rerum Natura 4

Egilea eta marrazkigilea: Patxi Huarte "ZaldiEroa"

Komikia. Bonaparte Errusiako kanpainan bezala, ezinean dabil Napoleon Lopez gurea, euskal gizarte eskertzarrekoak haren normalizazio saioak ulertu nahi ez dituela-eta; The Organization, berriz, zenbat eta gutxiago agertu, orduan eta arrakastatsuago.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots & Bonberenea Txaranga

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en kanta ospetsuenak "Bonberenea erara" izan dira presatatuak, Txarangaren hotsa pailazoaren ahots eta letrekin nahastuz. Bere osotasunean Bonberenean ekoiztutako diskoa da. 11 abesti eta 12 ipuintxo osatutako disko honetan, txaranga urte hauetan zehar egindako lagun askok hartu dute parte, besteak beste Aiora Renteria (Zea Mays), Aitor Gorosabel (Su ta Gar), Ines Osinaga (Gose), Francis Díez (Doctor Deseo), Oreka Tx, Agustín Mujika (Takolo)...

Malabar Printzesa

Gilles Legrand. Frantzia. (2004). 94 min

Desagertzea ez da hiltzea; halaxe erabaki zuen Tomek, filmeko 8 urteko mutiko protagonistak. Gauza bakarra du Tomek gogoan: kosta ala kosta duela bost urte Mont-Blanc mendiko glaziar batean desagertu zen ama aurkitzea.

Abenduaren 2tik 16ra bitarteko hitzordduak

Alegiako udazkenean kultura

Ipuin kontaketa. Alegiako Liburutegia. Abenduak 2, ostirala. 17.00. Maite Francok eskainia, haurrentzat zuzenduta.

Errezitaldia. Alegia. Abenduak 2, ostirala. 22.00. Euritan. Musikaz lagundutako errezitaldia. Eneko Aranburu eta Txoan Ormazabal errezitatzen eta Desorodutan taldea musikatzten.

Hamaiketako. Alegia, herriko plaza. Abenduak 3, larunbata. 11.00

Dantzari Txiki eguna. Abenduak 4, igandea. Sutarrri dantza taldeak antolatuta.

Organo kontzertua. Abenduak 11, igandea. Alegiako eliza. 12.00. Loreto Aramendi

Lizartzako kultur astea

Abenduak 2, ostirala. 20.30. Kantu poteoa plazatik hasita. Amaieran gaztain jatea Gazte txean.

Abenduak 3, larunbata. Frontenis txapelketaren finala (12.00), "Musika tresnen fabrika" umeentzako antzerkia, herriko plazan (17.30), "Gitarra eta ahots-fantasia euskal kanten inguruan" kontzertua, kultur

gunean (22.00) eta "Margot" taldearen kontzertua Gazte txea (00.00).

Abenduak 4, igandea. "Ispilua" helduentzako antzerkia, kultur gunean (19.00).

Zinea

Bi anai. Tolosa, Leidor. Abenduak 4, igandea (19.30 eta 22.00). Abenduak 5, astelehena (19.30)

Malabar printzesa. Tolosa, Leidor. Abenduak 6, asteartea (17.00)

Tintin. Tolosa, Leidor. Abenduak 8, osteguna (17.00 eta 22.00). Abenduak 11, igandea (17.00 eta 19.30)

Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia

Abenduak 2, ostirala. No tengas miedo (Leidor. 12.00 eta 15.00), Viajeros al tren (Topic. 11.00, 14.30 eta 22.30), Puppet Circus (Euskal Herria plaza. 18.30), Elurrezko panpina (Kultur Etxea. 10.30, 15.00 eta 18.00), Pequeños deseos (Gorosabel auditorioa. 11.00 eta 14.30).

Abenduak 3, larunbata. Puppet Circus (Euskal Herria plaza. 13.00), Pascual Patroclo (Kultur Etxea. 17.00), Basura por cirue-




las (Topic. 18.00), El increíble viaje (Leidor. 19.30).

Abenduak 4, igandea. Puppet Circus (Euskal Herria plaza, 13.00), Viento pequeño (Leidor, 17.00), Miedo? Por qué? (Leidor, 18.00),



Txuleta en fruta

Abenduak 5-8 bitartean. Tolosa. Zerkausia. Zerkausia jatetxe



Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Internet eta e-administrazioa	2011.12.11	20
Fabrikazio mekanikoko produktuen irudikapen grafikoa	2012.01.10	40
Homeopatia	2012.01.10	24
Adimen emozionaleko tailerra	2012.01.11	15
Lan arrisku eta ingurugiro arriskuen prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizazioan	2012.02.27	30
Fluordun hozgarrien manipulazioa.	2012.02.27	24
Ikastaro osagarria		
Fluordun hoztaileen manipulatuzaile ikastaro osagarria	2012.02.27	24
Lan taldeen kudeaketa	2012.02.27	45

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?

Jo ezazu Tolosaldea GLHBko bulegora.

Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Teléfonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



erraldi bihurtuko da, txuleta erretzailerik onenek erretregietako menu tradizionala prestatuko dute. Abenduak 5, astelehena (afaria); abenduak 6, asteartea (bazkaria); abenduak 7, asteazkena (afaria) eta abenduak 8, osteguna (bazkaria).

Irteera

Zumarragako perira irteera. Alkizatik. Abenduak 13, asteartea. Santa Luzia eguna ospatzeko Zumarragako perira joateko irteera. Goizean perian buelta eman eta arratsaldea libre.

Erakusketa

Bularretik Altziora. Abenduaren 16tik hasita. Tolosa, Aranburu Jauregia.

T-Argazkia. Abenduaren 16tik hasita. Tolosa, Aranburu Jauregia.

Dokumentalata

Abenduak 16, ostirala. "Mar-tan" dokumentalaren proiektioa eta solasaldia. Anoetako Mikelasagasti auditorioan, 19.00. Mugarik Gabe elkarteak dinamizatuta. 7 emakume feministek indarkeria matxista jorratu, salatu eta aurre egiteko era desberdinak aurkezten dituzte dokumentalak.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 2 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Asteazkena, 7 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Astelehena, 12 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
Larunbata, 3 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Osteguna, 8 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Asteartea, 13 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Igandea, 4 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	Ostirala, 9 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Asteazkena, 14 Morant, R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
Astelehena, 5 Morant, R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Larunbata, 10 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Osteguna, 15 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra
Asteartea, 6 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Igandea, 11 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Ostirala, 16 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



**SANTA
LUZIA
GARAJEA**

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

Horoskopoa

Abenduaren 2tik 16ra arteko aurreikuspena

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegieta 100 m²-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Sexua ez zaizu gehiegi interesatuko eta zure bikotearen aurkako erantzun eta zigor gisara erabiliko duzu. Hala ere, denbora baterako kontua baino ez da izango, zuen arteko harremana hobera doa, egonkortasunaren bila.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Garai oparoa dator, aurreko hilabete-tako zailtasunetatik urrun. Erraztasuna negozio kontuetan, bereziki espertzio eta inportazioetan. Bidaiatzeko momentua ez bada ere, bai atzerriko kontuak bertatik konpontzearena.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Gabonak atzerrian igarotzeko aukera izanez gero aprobeztatu beharko zenuke. Zailtasunak aurkeztuko direla zalantzarik ez baina pertsona horrekin egun batzuk igarotzeko merezi du.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Bikotearekin asteburu pasa erromantikoa egiteko aukera, erdi ezkutuan arituko zarete gainera. Urtean zehar egindako inbertsioen emaitza jasoko duzu. Alor honetan gainera, ez zaizkizu ideiak agortuko.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Urteko azken hilabete honetan zorte zure alde jarriko da. Burua martxan jarri eta plan aldaketari ekingo diozu, aspalditik planifikatutakoa hankaz gora jarriz.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Urtean zehar oker egindakoa orain izango duzu gogoan, ondorioak azalduko dira eta. Umore txarrez bazeude ere, ez iezaiozu gogo ezari azaltzen utzi. Harrokeria alde batera uztea eta jokaera zuzentzea dagokizu eta.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Zure bizitzako momenturik onenean ez bazaude ere, jende berria ezagutzeko aukera izango duzu. Mundu berrietan murgiltzeko aukera. Ez eza-zukera hori galtzen utzi, aurrerantzean profesionalki baliagarria izan daiteke eta.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Ekonomia erabat osatzea lortu ez baduzu ere, bide onean zoaz, aparteko diru-sarrera jasoko duzu gainera. Publizitate, promozio, komunikabideekin harremana duen proiektua diru-sarrerara bihurtuko da.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Alai eta pozik egongo zara, baina egia esan ohikoa ez duzun jarrera ere sumatuko dute gertukoek. Ondo ezagutzen zaituenak aldaketak antzemango ditu: eskuragarriago, irekiago, sentikorrago eta maitekorrago azalduko baitzara.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Zure jarrera eta gertakizunak kontutan hartuta bikotearekin duzun harremana ez dago bere onenean. Hala ere, azken hilabeteotan hitz egindakoa gogoan hartu eta behar den momentuan erreakzionatzea dagokizu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Abenduak aukera ezberdinak eskainiko dizkizu, aurrera egin ezazu. Baikorki sentituko zara eta esfortzu minimoarekin ongizate fisikoa berreskuratuko duzu.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Lan kontuei dagokienean, berri onak jasoko dituzu hurrengo urteari begira. Atzeriarekin harremana izatekotan ere berri onak ez dira falta izango. Hasiera batean nahastuta egon zaitezke, izan ere espero zenuen erantzunik ez da izango eta.






skunkfunk

Skunkfunk Store Tolosa

Kale Nagusia, 21-23

20400 Tolosa

Gertu...

V I L L A B O N A K O
H I L E T A Z E R B I T Z U A K
B E I L A T O K I eta S U L A B E A

24 H..

943 694 873

